


NAHIAGO NUKE! MUTILA BANINTZ!

DAVID
DURAN

erein



**NAHIAGO NUKE!
MUTILA BANINTZ!**

(Bis Zikloa)

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko,
nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.
Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. edizioa: 2016ko azaroan

Jatorrizko izenburua:

Cicle Bis

Itzulpena:

Gerardo Markuleta

Azala:

Mari Mar Agirre

Maketazioa:

Erein

© David Duran

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-056-4

L. G.: SS-2012/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

NAHIAGO NUKE! MUTILA BANINTZ!

(Bis Zikloa)

DAVID DURAN

ITZULTZAILEA: GERARDO MARKULETA

Lankide eta ikasle askoren laguntza eta sostengua eskertu nahi ditut; eta esker bereziak eman Julià Raventós-i (psikologoa eta familia plangintzarako zentro bateko langileari) eta Montserrat Argerich-i (maistra eta biologia irakasleari).

Nahiago nuke mutila banintz!

Egia esan, ez dut betidanik mutila izateko gogorik izan. Ezta hurrik eman ere. Baina kontua da sarri sentitu izan dudala desio hori eta, behin baino gehiagotan, baita besteei kontatu ere. Esango nuke, gogora ekarrita, ideia hori hamabi urteen inguruan sortu zitzaidala, aldaketa egiten hasi nintzenean. Orain, jakin nahi bazenute ere, hamazazpi dauzkat.

Pubertaroko kontu hori –neskatila izateari utzi eta emakume bihurtzeko garai hori– ez du mundu guztiak adin berarekin igarotzen, ezta gutxiagorik ere. Ez dago ahots bat esango duena: “Tira, bada: DBHko lehen mailako neskatala guztiak emakume izango dira une honetatik aurrera”, eta gero IIT/ITV moduko batean erakutsi beharko da, amak autoarekin egiten duen bezala.

Neska bakoitza bere gorputzaren heldutasunaren arabera egiten da emakume, bere erloju biologikoren arabera. Hala, badira hamabi urterekin emakume egiten direnak –baita lehenago ere–, eta badira hamalau urte egin eta gero emakumetzen direnak –baita geroago ere–. Mutikoak horretan

apur bat motelagoak dira eta, normalean, guk baino urte pare bat gehiago behar izaten dute gizontzeko, edo horren itxura emateko behintzat.

Aldaketa zeinek bere garaian egiteak “Beldurraren Pasabidea”ren antzeko alde txarrak ditu: aurre-aurrean doazenak eta azken muturrean doazenak ateratzen dira kaltetuen. Badakizue, zure gelako guztiak haurrak badira, eta zu ordurako emakume eginda bazaude, zureak egin du. Ordea, zure gelako guztiak adoleszenteak badira, eta zu oraindik haurra, artean aldaketa egin ez duzulako, zureak egin du baita ere.

Tira, ba, niri, ileen eta titien zozketa bitxi horretan aurrealdean ibiltzea tokatu zitzaidan. Ilarako lehena nintzen, gelako lehena eta, orduan iruditzen zitzaidanez, munduko lehena, emakume egiten. Eta orain barre egiten dut, gaudituta daukadalako, baina orduan ez zen batere une goxoa izan, ez horixe.

Hamabi urterekin, lehen hezkuntzako bosgarrena egiten ari nintzela, estrogenoak eta progesterona –sexu hormona femeninoak– bazterrak nahasten hasi ziren eta nire gorputzean aldaketa nabarmenak, horixe nabarmenak, eragiten.

Ikasturtearen erdian, bularrak handi egiten hasi zitzaizkidan. Hazi eta hazi egiten ziren, norbait –estrogeno madarikatu horiek, alegia– puxika bat puzten ari balitz bezala, eta leherrarazi arte ez gelditzeko asmoarekin, gainera.

Beharbada apur bat esajeratzen ari naiz, baina orduko hartan desesperagarria zitzaidan ikustea –etengabe begiratzen nituen eta– nola, zutik nengoela,

bularraldeak ez zidala ia oinak ikusten uzten. Sensazio berria zitzaidan, eta behin baino gehiagotan pentsatu nuen estropezu egingo nuela zer zapaltzen nuen ikustea galarazten zidaten oztopo haiekin.

Horrek ez du esan nahi ezinezkoa zitzaidala mendi-lerrotxotik harago ikustea. Izan ere, laster ohartu nintzen zilborraren azpitxoan begetazioa agertzen hasia zela: bilo fin-finak, berehala kizkurtzen hasi zirenak.

Zintzo hitz eginez gero –eta halaxe arituko naiz liburu osoan–, esan beharko dut ile horiek ez zidatela halako disgustu handirik ematen. Emakume biluzien argazkiak ikusia nintzen eta, gutxi asko, guztiak zeukaten behealde bilotsua.

Eta ez nuen bakarrik argazkian ikusia. Urte pare bat lehenago, etxean nintzen Laura (nire lagunik minena) eta Olgarekin (auzoko bat, gu baino hiru urte nagusiagoa). Lagaidazue esaten jaio nintzenetik ezagutzen dudala Olga, eta ahizpa bezalako bat dela niretzat. Konfiantza handia daukagu elkarrekin ze, horrez gain, oso neska jatorra eta irekia baita. Laura eta bioi den-dena azaltzen digu.

Baina tira, goazen harira. Arratsalde batez, hirurok ari ginen txisteak kontatzen eta txoroen pare barre egiten. Hain zuzen atsedean pixka bat eskatzen ari ginela, arnasa hartu ahal izateko, Olgak, zutituri, esan zuen:

–Tira, hau gustatuko zaizue, seguru.

Eta ahots sakona jarritz, mantsoegi doan kasete bat balitz bezala, jarraitu egin zuen:

–Fidel Castroren polizia sekretukoa naiz.

–Nolatan polizia? –erantzun zuen berak, beste ahots bat eginez–. Fidel Castroren polizia guztiak bizardunak dira eta!

–Sekretukoa esan dut! –amaitu zuen, gonamotza jaso eta kuleroak apur bat jaisten zituela.

Nik, ideiarik ez nor ote zen Fidel Castro, eta hala ere ulertu egin nuen txistea, bizar isilpeko hura ikusita. Baina ez Laurak ez nik ez genuen barrerik egin.

Txistea ulertu eta barre egin ez izanak erakusten du ongi nola geunden, zein txundituta. Zuek ez zineten moztuko, halako egoera batean? Segundo bartzuetan gure begiak galduta ibili ziren haren ile-triangeluan. Laura ez dakit, baina ni behintzat apur bat sustatuta ere banengo.

–Txatxi, ezta? –esan zuen, erakustaldi bilotsua bukatzen zuela–. Zuek ez duzue bizartxorik?

Biok ezetz egin genuen buruaz, artean ahotsa berreskuratu ezinik.

–Ba izango duzue! Egunen batean ile bat edo beste ateratzen hasiko zaizue, eta gero beste bat... Azkenean, alu guztia oso iletsua izango duzue, nirea bezalakoa. Kiwi baten itxura guztia!

Ez gintuen oso animaturik ikusiko iragartzen zingun aldaketarekin, zeren, haren ostean, behartuta sentitu baitzen aluan ilea izateak zeuzkan abantailak azaltzera.

–Gure amak esaten din ilea poza dela. Eta, egia esanda, hauek horixe ematen ditene. Zelaitxoa goxogoxo laztantzean, sentsazioa alimalekoa dun. Eta,

hondartzan, kuadrillako mukizuak txunditu nahi badituz, bainujantzi horia jartzen dinat, pittin bat gardentxoia dun eta. Biziki interesgarria dun iletsua izatea!

Zelako astapotroa, gure Olga. Beti bezain gordina. Ikusten duzue, mihian bilorik ez hark. Besapean ere bai, ordea.

Hain zuzen ere, niri besapekoak ateratzen hasi zitzaizkidanean, haserre samar jarri nintzen. Besteak intimoagoak edo dira, ezkututzen errazagoak, baina galtzarbekoak erabat agerikoak dira. Klasean galdera bat erantzun nahi izatea nahikoa, erakustaldi nabarmena egiteko.

Baina nire gorputzari eragiten zioten aldaketa guztien artean (ileak, gora eta alboetara haztea...), lehen azaldu dizuedan bularren kontu horrek amorrarazten ninduen gehien. Apur bat kuzkurtuta ibiltzen nintzen, sorbaldak aurreraxeago, beste haiek disimulatzen saiatzeko, baina egunean-egunean zailagoa zitzaidan.

Unerik txarrenak saskibaloian jokatzeari etortzen ziren, batez ere baloia pasatzen zidatenean: zirkuko malabaristen antzera sentitzen nintzen, hirurak aldi berean nola menperatuko: nireak eta gomazkoa. Gainera, korrika egiten nuenean, denak bote egiten zidan; eta eskerrak ez ziren zorura heltzen, behin baino gehiagotan pentsatu bainuen ez ote zidaten *urratsak* pitatuko.

Taldearen kapitain egin ninduten, ez besteei baino gehiago nekielako, ezpada beste guztieki baino

handiagoa ematen nuelako. Entrenatzailearen erabaki hura primeran etorri zitzaidan: hartara, taldeko besteak ez ziren hainbeste fijatuko nirekin. Aldageletan, lotsa pasatu nuen pare bat egunetan, polizia sekretuaren nire agiria erakustera deliberatu nintzen arte. Lidia ahoberoa aurreneko aldiz gertatu zitzaidan atsegin, guztien ikusmin disimulatuaren aurrean bota zuenean:

–Baa, hori ez dun ezer. Nire ahizpak askoz ere gehiago zeukan!

Garai hartan urduri samar nenbilen, eta hori etxean ere nabari zen: borrokaldi etengabeak izaten nituen Didac txoroflautarekin (nire neba maite Didac, beste izenez *Ipurmusu*).

Ipurmusuk eta biok egunero izaten genuen bat edo bat. Gau batean, erdi afalduta geundela, nebarekin borrokan hasi baino segundo milaren batzuk lehenago, amak ohera bidali ninduen. Gelatik entzun nien berari eta aitari izugarritzko sermoia botatzen ziotela neba abusoiari, nahiz eta aitortu behar dudan nik hasia zela iskanbila.

Tartetxo bat geroago, amak gelako atea jo zuen, sartu eta nire ondoan eseri zen, ohean. Eskuetatik heldu eta ezteki esan zidan:

–Begira, Júlia, emakume egiten ari haiz. Hazialdi ederra egin dun, asko handitu haiz. Ez dun ikusi nolako bular politik jarri zaizkin?

–Politak? –esan nion, apur bat histeriko jarrita–. Badakizu zelako lana den hor zehar ibiltzea bularraldetik zintzilik halako bi meloi daramatzazula?

Bi pisu alferreko hauek eramatea, kamiseta estanpatu guztiak hondatzen dizkidatela?

Berehala ohartu nintzen galdera erabat txoropittoa zela, amak ere bazituen eta, zera, bularrak. Eta nireak baino lodiagoak gainera. Baina jarraitu egin nuen, erdi negarrez:

–Orain bero egiten hasiko da, eta eskolan ezin izango dut jertsea erantzi. Kamiseta edo alkandora hutsean geratuz gero, askoz ere gehiago nabaritzen zaizkit... Mutiko batzuek, nirekin hitz egiten ari direla, titietara begiratzen didate begietara gabe... Eta ileak ditut, besapean eta... hantxe. Eta okerreana: nire klasean, andereñoak esaten duen moduan, bizkor garatutako bakarra naizenez, natur erreserba moduko bat bihurtu naiz!

–Lasai, Júlia, lasaitu hadi! Titiak, emakume guztiok ditinagu. Gauza naturala dun eta polita. Gustatuko zain, ikusiko dun. Eta hobe dun prestatuta egon, ze laster hilekoa etorriko zain, eta hori bai dela astun samarra...

Amak hori esatea, besterik ez zitzaidan falta! Orduantxe esan nuen lehen aldiz, ohetik altxatuta, azken egunetan buruan bueltaka ibilitako esaldi hura:

–Nahiago nuke mutila banintz!

Amak barre egin zuen; bera ere zutik jarri zen, eta besarkatu egin ninduen:

–Hara, tira, ez izan tuntuna. Zer uste dun, mutilek ez dutela aldaketarik izaten ala? Haiek ez ditentitirik, baina bai beste gauza batzuk, eta gu horietaz libratu egiten gaitun. Eta ilea, haiei ere ateratzen zaien

hiri bezala eta, horrez gain, hanketan, besoetan, bularrean eta, denetan okerrena, aurpegian! Eta hori gutxi balitz, mutikoei ahotsa aldatzen zaien pubertaroan. Ez haiz gogoratzen, barre nola egiten hion Didac-i?

Pentsakor geratu nintzen. Gogoeta egin nuen bizarra egunero egiteak, aitak bezala, edo noizean behin, Ipurmusuk bezala, horrek ere jainkoaren zigor benetakoa izan behar zuela.

–Tira, Júlia, ez hadi gehiago kezkatu. Emakume izatea zoragarria dun, benetan. Gauzatxo bat zeukanat hemen; egun batzuk baditun eman nahi ninala baina ez ninan une egokia aurkitzen...

Amak bularretako batzuk oparitu zizkidan. Ez dut uste jakingo zuenik egun batzuk lehenago bere batzuk probatuak nituela. Janzten lagundu zidan, eta gero bere lekuan egoki jartzen. Oso ondo ematen zidaten.

Haien gainean udako kamiseta guztiak jartzen aritu nintzen, eta ispiluaren aurrean jarrita –logelako armairuan dagoen handi horren aurrean–, alde guztietatik begiratzen nion neure buruari. Kamiseta batzuek tiranteak agerian uzten zituzten, eta hori ez zitzaidan gustatzen.

Askoz hobeto sentitu nintzen berehala. Bularretakoek bazuten beren grazia. Gogoratzen naiz pentsatu nuela artxibo moduko batzuk zirela, gauzak ordenaturik, beren lekuan jarrita edukitzen laguntzen dizutenak.

Tarte baten ondoren, jada arropa pila bat ohe gainean neukala, amak alaiago ikusiko ninduen edo,

eta alde egin zuen. Luze baino lehen, atea jo zuten berriz ere. Ipurmusu zen:

–Júlia, sentitzen dinat lehen gertatua... Zera esan nahi ninan...

Pentsatu nuen, emakume nintzenez, eta ez neskatila, emakume gisa jokatu behar nuela. Irribarre egin nion, barkamena eskatzen laguntzeko, baina kale egin nuen bete-betean.

–...errepikatuta zeukanat, emakume, eta potro bat emango dinat titi baten truke!

Pertxa bat jaurti nion, baina zorterik gabe: ez nuen ukitu ere egin. Zein mutil alproja!

Egun hartatik aurrera, gauzak hobeto joan ziren, nahiz eta artean batzuen eta besteen ziriak eta begiradatxoak jasan behar izan nituen. Ikasturtea amaitzear zegoela, gogoan dut Ramonek –nire miresle batek, egun osoan bularretakoaren atzealdetik tiraka aritzen zitzaidanak– zera esan zidala, begirada nire titietan galduta:

–Zuri seguru bi geratuko zaizkizula... *zintzilik!*

Berak bai *gutxiegi* ugari! Niri ezta bat bera ere. Gainera, tutoreak gurasoei esan zien asko eta asko aurreratua nintzela beste ikasturteekin alderatuta. Guzti-guztien ondorioa ahobatezkoa izan zen:

–Jakina, asko heldu zaigu Júlia aspaldion. Emakumetxo bat egina dago.

Uda hartan, beste urte batzuetan bezala, udalekuetara joan nintzen. Eta han, mendi puntan geundela, erraz asma dezakezue zer gertatu zen, ezta? Hain nirea dudan zorte onarekin, udalekuko

bigarren egunean hilekoa etorri zitzaidan. Urte osoan etxean, eta bederatzi egun kanpoan, eta orduantxel

Etzetik irten baino lehenago sumatu nuen halako ezinegon bat. Laurari ere aipatu nion tripako mina neukala. Baina bera ere ez zegoen oso ondo, eta irtenaldiko urduritasuna zela pentsatu genuen.

Edonola ere, hilekoaren kontu hori alde z aurretik espero nuen. Amak aipatua zidan, eta, horrez gain, Olgak ere esan zidan etortzekotan izan behar nuela. Horrexegatik nengoen oso adi telebistako publizitatearekin, konpresa gero eta meheagoak iragartzen dituen horrekin. Hilabete batzuk lehenago, munduko arreta guztiarekin irentsi nuen hilekoaren mekanismo guztia azaldu ziguten zientzietako klase hura. Gezurra dirudi zenbateko etekina ateratzen zaion klase bati, gaia zure interesekoa denean.

Buruz ikasi nuen funtzionamendua, eta oraindik ere ondo gogoan daukat. Begira, egun batzuetan, astebete gutxi gorabehera, odola galduz zoaz. Kanila bat gaizki itxita bazenu bezala. Horregatik jarri behar dituzu konpresak edo tanpoiak. Hilekoaren eta hilekoaren artean hogeita zortzi bat egun igarotzen dira. Hogeita zortzi egun horiei hilekoaren zikloa esaten zaie. Zikloa hastean, hilekoa daukazun bitartean, obulutegia lanean hasten da beste obulu bat egiteko.

Zikloaren erdi aldera, hilekoa hasi eta hamalau bat egunera, obulua helduta dago eta obulutegitik ateratzen da. Mantso-mantso umetokirantz joaten da. Egun horietan erraztasun handiagoa dago haurdun geratzeko; tentuz ibiltzea komeni da, beraz.

Espermatozoide xeblebre bat obulura heltzea nahikoa, hura ernaltzeko eta habia moduko bat egiteko. Habia horretatik, txoriak gabe, haur bat jaioko da hilabete batzuen buruan, eta amatxo deituko dizu azkenean.

Obulua ernaltzen ez bada, ez dago habiarik. Hura egiteko erabili behar zen materiala, mukosak, askatu eta baginatik ateratzen dira, odolarekin nahastuta. Isurkin horretan doaz obuluaren hondakinak: gorputzak haserre antzera egozten ditu: hainbesteko lana ezertarako ez, arraioa! Obulua txiki-txikia da, horregatik ez da ikusten.

Une horretatik aurrera, beste ziklo batean gaude. Beraz, sekula amaitzen ez diren ipuin horietako bat dirudi. Baina ez da hala kontua. Berrogeita hamar udaberri joan eta gero, obulutegiek erretiroa hartzen dute; eta obulurik ez dagoenez, ez dago hilekorik. Horixe da menopausia. Sexu gaitasuna gordetzen da, baina ezin da haurrik izan. Esterilizazio natural antzeko bat da, eta sekulako hondamena antisorgailu, konpresa, tanpoi eta auskalo zer gehiagoren fabrikatzaileentzat.

Sarri pentsatzen nuen: mutiko sortu eta horretaz guztiaz libratzeko zorterik izan ez nuenez, jaiotzetik menopausikoa izan nintekeen behintzat, eta hilekoaren mugida guztiaz paso egin. Une haietan, ulertuko duzuenez, haur bat izatearen ideia gorrotagarri samarra zitzaidan.

Edonola ere, hilekoa berehala etorriko zitzaidala ondo irentsita neukan; ondo irentsita... eta are beherago..., ulertuko didazue. Baina artean konpresak

erosteko neurri zuhurra hartu gabe nintzen, ustez eta hori eguraldi txarrari deitzea bezalako izango zela.

Eta esaten ari nintzena, hain zuzen ere udaleku haietan egin zidan bisita ama Naturak. A zer nolako ama! Begiraleei eskatu beste erremediorik ez nuen izan, eta haiek joan ziren bila herrira. Horrexek eragingo zuen talde osoak berehala jakitea hilekoa lehen aldiz etorria zitzaidala.

Afalorduan, mutiko bat niregana etorri zen, mundu guztiaren aurrean. Makarroi platera eskuetan zuela, oihu egin zuen nire hankartea seinalatuz:

–Tira, hemen tomatea dago!

Une hartatik agurtzeko garaia heldu arte, Laura eta begiraleak izan ezik, uste dut gainerako guztiak Solis andereñoa esaten zidatela.

Gainera, juxtu-juxtu ez nion muturra apurtu Ireneri: neskak esaten zuen amak esana ziola bazela uste bat esaten zuena hilekoa izanez gero ezin zinela bainatu.

–Zuk zeuk ikusi, baina ibai honetan bainatuz gero, hil egingo zara. Eta momentuan bertan, gainera. Eta okerrago dena, udalekuak izorratuko dizkiguzu, etxera bueltan bidaliko gaituzte eta.

Oihuka esan zidan, ibai barruan igerian ari zela. Saiatu nintzen esaten eskolan ondo azaldua zigutela hura gezur biribil-biribila zela. Baina neskak hain seguru esaten zuen... , zer esango dizuet, nahiago izan nuen begirale bati galdetu.

–Hori ez al da *tapu* horietako bat?

–*Tapu* ez, tabu. Arrazoi duzu, Júlia. Azaldu zizuten bezala, sexuaren inguruan tabu ugari izan dira

beti. Tabuak oinarririk gabeko usteak dira. Esaten zen hilekoa zeukan emakumeak ezin zuela bainurik hartu, ez gimnasiarik egin, ez pisurik altxatu, ez maionesarik egin, ez gauza hotzik edan, ez landareak ukitu, ez amodioa egin... Gezur biribilak, ezjakinkeriak iraunarazitakoak. Tira, segi bainu hartzera, bero jasanezina egiten du eta!

Irenek hain une txarra pasarazi zidan ze, ibaira sartu eta berehala, harengana jo bainuen. Ez dut uste gure neska aurrerantzean egarriak egongo zenik; hilabetean, gutxien jota.